



# *INFORMATZEN 1/2004*

## *LAN ARRISKUEN PREBENTZIOAN ARAUDI- ALDAKETAK*

### **SARRERA**

1995eko abenduan argitaratu berri zen Laneko Arriskuen Prebentzio Legea (LAPL 31/1995, urte hartako azaroaren 8an argitaratu zen) aztertu genuenean, ordurako adierazi genituen lege honek zituen gabezi handiak. Esan genuen ere, Espainiako Konstituzioaren ildoei eta autonomia-eskuduntzen banaketari jarraituz, patronalaren aldekoa eta zentralista zela.

Dena den, ez genuen ezkor izan nahi. Are gehiago ezkortasun horrek gure sindikalgintza oztopa zezakeelako. Hau hala izanik, Negoziazio Kolektiboaren bidez eta enpresetan, egunez egun ekinez, gaingitu nahi izan genuen araua. Honela ba, gure esku hartzean norbanako eskubideak zein eskubide kolektiboak (lanpostuetan osasunaren bermatzaileak) zehaztu behar dira.

Ordudanik egin ditugun ikastaroetan eta aholkularitza tekniko-sindikaletan arauzko markoa eta baliabide baliagarria denean, honen erabilpena ezagutzeko beharra proposatu genuen. Egiaztatu dugu ere, hau benetan ezartzen denean, eraginkortasunez egin ohi dela. Hau sindikatuko mugimendua eta kontzientzia oso sendoa delako gertatu ohi da. Bi hauetatik honako ideia ondorioztatzen da:

*OSASUNA EZ DAGO SALGAI, ETA HONEN DEFENTSA EZ DAGO BESTE  
NORBAITEN ESKU LAGATZERIK.*

### **BALANTZEA**

Lege hau duela 9 urte indarrean sartu zenetik, egin daitekeen balantzea ezin ezkorragoa da. Ez soilik, ez delako istripuen kopurua, laneko gaixotasunak edota lanarekin zerikusia duten gaixotasunak (eskandalagarria izanik, oraindik orain ezkututzen dituztelako) murriztu.

Frogatu da Lan Arriskuen Prebentzio Legea eta berau garatzen dituen araudiak ez direla eraginkorrak langileek jasaten duten epidemiari aurre egiteko, nola hala: gihar eta hezurduraren lesioak, produktu kimikoekin lan egiteak dakartzan gaitzak, edo bestela, arrisku psikosozialek eragiten dituzten gaixotasunak. Horra, sexu eta moral-jazarpenak, laneko bortxa edota estresa.

Egiaztatu da ere, prebentzioa sustatzea, araudia betearaztea eta urraketak eta hauen arduradunak zigortzea dagokien Administrazio Publikoek (Justiziako Administrazioaren kide izanik, epaileak: ebazpen onartezinen bidez) betidanik, dagozkien zereginak geldo betez eta patronala errugabetu nahian, ezikusiarrena egin dutela.

Arazoa ukatu nahi dute. Argi dago nortzuk diren egoera hauen eragile eta arduradunak: patronala osatzen duten pertsonak. Hauek lanpostuak prebenitzeko neurriez hornitu beharrean, beren zorroa betetzeari ematen diote lehentasuna eta Osasuna osten digute.

Porrot honek, deskalabru honek eragiten duen giza eta ekonomia-kostuak, sindikatu kontsekuenteok eragin ditugun presioek eta Europako Batasunak egindako oharpenek ekarri dute Espainiako botere politikoez pentsatu izana arautze markoa aldatu behar zela.

Honela, Aznarrek agindu zion Durani, orduan Madrileko Kontseilu Ekonomiko eta Sozialaren buru, egoerari buruzko txostena egin zezan, eta istripuak murrizteko neurriak proposa zitzaizkan.

Aznarrek txosten hau egitea eskatu zuenean, aski ongi zekien bertan egiten ziren proposamenak errealitateari nolabait hurbiltzen bazitzaizkion ere, legea betetzeko garaian zeuden gabeziak eta prebentzio eta ikuskatze sistemen eraginkortasunik eza, etab.. islatzean, proposamen horietan ugazaben erakundeen iritziak jasotzen zirela. Honela ba, bertan, lan istripuen definizio murriztaileagoa agertzen zen, eta administrazioek are gehiago zentralizatzea aholkatu zuten. Gizarte Segurantzako sistemari berrikuntzak egitea ere aholkatu zuten. Berrikuntza honek ez zion onurarik ekarri prebentzioari, ez atentzio sanitarioari ez eta prestakuntzan hobekuntzak egiteari; baina bai ordea, patronalaren patrikari: langileen osasunaren kalterako botere gehiago ematen zuelako enpresarien elkartei, (mutualitateen xedea, teorikoki, ez da dirua irabaztea).

## **HAMAIKAGARREN ITUNA**

Proposamen hauek dira hain zuen P.P.ren gobernuak eta Espainiako patronalak, CEOE alegia, CCOO eta UGT-ri Lan Osasuneko mahaian bi urtean aurkeztu dieten proposamena. Negoziazio hau ez da berria. P.P.ak. Lan Osasunaz egin dituen, eta errepikatu diren plan guztiek betidanik izan dute CCOO eta UGTren bedeinkapena, oniritzia eta sinadura (eraginkortasun eza bezala).

Teorikoki, “isilpean”, 2002ko abenduaren 30ean egin zen negoziazio honetan, lehen akordio orokor bat jaio zen. Akordio edo itun honi ekin zioten LAPLari eta Maila Sozialeko Arau-hauste eta Zigorreko 5/2000 Legea (LISOS) 54/2003 Legearen bidez zertxobait aldatu zuten.

LAPLren 24. artikulua garatzeko akordioa lotu dute (Enpresarien Jarduna Koordinatzeko xedean 2004/01/31eko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen). Nahiz eta ondoren argitaratuko ditugun *Informatzenetan* sakontasun handiagoz emango dugun honen berri, esan, oraindik ez direla zehaztu betebeharrak eta ardurak (leku berean lan egiten duten enpresen artean beharrezkoa gerta daitekeen prebentzio jardueren koordinazioan).

Dirudienez, ez dira lotu Gizarte Segurantzako Sistemaren aldaketak. CCOO eta UGTren jarrerak eskubideak murriztuz eta Sistema Sanitarioaren pribatizazioak handitzearen guztiz kontrakoak ez diren arren, Mutualitateetako zuzendaritzan sartzeko ogi papur batzuk eskatzen dute honen truk. “Balizko sindikatu” hauek dirua besterik ez lukete aterako hemendik.

Gauzatu nahi diren neurrien bidez mutualitateetako sendagileei ahalmena eman nahi diete hauek kontingentzia arrunteko ezintasunetan ekonomia-mailan alta eman ahal izan dezaten. Hau 6/2000 Legearen 44. artikuluan agertu zen, baina ez zen gauzatu garatu ez zelako. Neurri hauek Mutuei ahalmen handiagoa ekarriko liekete lanbide-kontingentzietan, adibidez: txostenak egiazkoak direla ziurtatzeko; “in itinere” eta traumatikoak ez diren (bihotzekoak eta zerebro infartuak) istripuak lan-istripuen definiziotik ateratzeko; etab.

Negoiazio horretan lotu gabeko gaiak ditugu. Hala nola, “autoen aseguruako” sistemaren ezbehar mailari lotuak. Horra enpresek Gizarte Segurantzari BONUS-MALUS kotizatzekeko modu ezaguna, bide-segurtasuneko emaitzetan ezaguna eta eraginkor-eza. Neurri hauei oso kaltegarriak deritzegu, eta ekartzekotan, ekarriko digute: langileen eskubide galerak, behin-behinekotasuna, jarduera arriskutsuenen azpikontratazioa eta enpresa askotan istripuak ezkutatzea (horrela gutxiago ordaintzeko).

Europako Batasunak agindu zuen Laneko Gaixotasunen zerrenda berritzea, eta beharrezkoa eta derrigorrezkoa izanagatik, oraindik ez da egin. Ildo honetan, bertan bil daitezkeen gaixotasunak baino garrantzitsuago izango da egungo lan baldintzak eragiten dituzten gaixotasunak onesteko bitariko sistema (eta ez, indarrean dagoen eta erabat itxia dagoen 1978. urteko sistema zaharkitua) egin ahal izana.

## *54/2003 DEKRETUAREN AZTERKETAZIO*

### **AGERPENA**

Atal honetan eta ardurei dagokienez, oso autokritika txikia egiten ari da. Ez da behar beste aztertzen zertan ez diren betetzen ari Lan Arriskuen Prebentzio Legearen printzipio nagusiak, ez eta lan arriskuen prebentzioaz, zaintzaz eta kontrolaz arduratzen diren organismoen porrotaren zergatia.

Orokorregiak diren lau helburu zehazten dira:

- Lan ezbeharrei bizkortasunez aurre egin.
- Lan Arriskuak Prebenitzeko benetako kultura sustatu. Hau benetan eta eraginkortasunez beteko da, eta ez ordea, itxuraz eta agirien bidez.
- Lan Arriskuen Prebentzioa enpresen Kudeatze Sistemetan integrazioa sendotu.
- Araudia betetzeko kontrola hobetu. Zaintza eta kontrolatzeko zereginak sendotu.

Lau helburu hauek irakurri ostean, ikus dezakegu hitz malguez, asko ematen duten hitzez josia dagoela: “benetako kultura”, “benetan bete”, “kudeatze sistemetan kudeatu”, “hobetu eta sendotu zaintza eta kontrolatzeko zeregina”. Ikusi, ikus daiteke ere ez dela aipamenik egiten lan merkatua ezegonkortu izanaz: lan osasunaren eragile nagusia.

## *I ATALA: LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO 31/95 LEGEAREN ALDAKETAK*

## 1. ARTIKULUA: LAN ETA GIZARTE SEGURANTZAKO IKUSKARITZAREKIKO LANKIDETZA

9.2 artikulua aldatu izanak adierazten digu autonomietako agintaritzetan laneko arriskuen prebentzioan diharduten teknikariak laneko ikuskatzailetzaren pertsonal laguntzaile gisa arituko direla.

Teknikarien lankidetzaren teoriko honekin, orainoan, Osalan eta Nafarroako Lan Osasunaren Institutuaz ari gara; aholku ematen eta kontrolatzen jende gehiagok lan egingo duela esanez sartu nahi digute ziria. Gaur egun, langile horiek zeregin hori beteko ez balute bezala!

Bide batez, eskuduntzen banaketari ere egiten diote trufa eta estatu mailako kidego bati, hala nola, Laneko Ikuskatzailetzari, funtzionarioekiko agintea ematen zaio; funtzionario hauek laneko agintaritzaren (Eusko Jaurlaritzaren edo bestela, Nafarroako Lanaren Ordezkaritza) autonomia-gobernuen arduradun politikoek menpe egon beharko luketenean.

Positiboa irizten diote teknikarien txostenak “ziurtasun-presuntzioa” izateari, baina gero, 2. atalean, LISOS 5/2000ko erreforman, Laneko Ikuskariak izan ditzakeen iritziak baldintza ditzake.

## 2. ARTIKULUA: LAN ARRISKUEN PREBENTZIOAK ENPRESAN IZAN DEZAKEEN INTEGRAZIOA

Diotenez, artikulua honek zerbait aldatzen ditu LAPLaren 14 eta 15. artikulua. Oinarri hau funtsezkoa da bi helburuak lor daitezen: alde batetik, “Laneko Arriskuak Prebentzeko benetako kultura sustatzeko” eta bestetik, “Lan Arriskuen Prebentzioa enpresen Kudeatze Sistemetan integratzeko”.

Hala ere, aldaketa hauek ekarriko diguten berritze bakarra laneko arriskuen prebentzio plana dokumentatu beharrean datza. Honek “bere baitan hartu beharko ditu enpresan arriskuak prebentzeko behar diren antolatze-egitura, ardurak, zereginak, jardunak, prozedurak, prozesuak eta baliabideak”.

Honela, nahi den laneko arriskuen prebentzioaren integrazioa agiri bakar batean adierazten da, eta behin eta berriz errepikatzen digute: “enpresaria arduratuko da prebentzio zereginak betetzeaz”.

Hori gutxi balitz, prebentzio plana egin dezaten enpresei ematen zaien 6 hileko opariaz gain, bertan, plan hauek nola egin arautzen da.

## 3. ARTIKULUA: ENPRESAKO ZEREGINEN KOORDINAZIOA

Hemen zehazten da, artikulua hau, LAPLren 24a alegia, araudiari dagokionez, garatuko dela, baina lehen aipatu bezala, honen gauzatzea 171/2004 Errege Dekretuan orokorregia dela, eta beraz, ez-eraginkorra deritzagu.

## 4. ARTIKULUA: PREBENTZIO-ZEREGINETARAKO BALIABIDEEN ANTOLAKETA.

Atal honi artikulua berri bat eransten zaio, 32. bidea. Honetan prebentzio baliabideak izateko beharra zehazten da. Lantokietan prebentzio baliabideak izatea derrigorrezkoa izango da baldin eta arrisku “bereziak” ohikoekin aldi berean gertatuko balira. Nahiz eta

honek egungo egoerarekiko aurrerapena dakarren, honen **benetako** eraginkortasuna ez da oraindik araudiaren bidez garatu.

#### 5. ARTIKULUA: SEGURTASUN ETA OSASUN BATZORDEAREN ESKUDUNTZAK.

39. artikulua 1. ataleko A paragrafoaren idazkera aldatu da. Aurrerapen positiboa izan da Segurtasun eta Osasun Batzordearen baitan adierazi izana: “eztabaidatuko direla gauzatu BAINO LEHEN eta eztabaidatuko dela arriskuen prebentzioarengan izan dezakeen eraginaz, PLANIFIKAZIO-EGITASMOEZ, LANAREN ANTOLAMENDUZ ETA TEKNOLOGIA BERRIAK SARTZEAZ, ETA PREBENTZIO ZEREGINA GARATZEKO ANTOLAMENDU ETA BABESAZ”.

Dena den, badugu Segurtasun eta Osasun Batzordeetan lana egiteak dituen zailtasunen berri, eta batik bat, langileak eta enpresariak berdintasunean parte hartzeko eskubideari egiten zaion murrizketen berri. Horregatik, gure ustez, erreforma hau hutsala izango da, baldin eta Patronalak eta Prebentzio Zerbitzuek alde aurretik ez badute dagokion dokumentazioa aurkezten azter eta egiazta dadin. Hau lehen urratsa izango da ekoizpenean eta prebentzio-ekimenen planifikazio eta garapenean gertatzen ari diren aldaketekiko jarrera har dezagun.

#### 6. ARTIKULUA: LANEKO ARRISKUAK PREBENITZEKO ARAUDIA BETE IZANAREN ZAINZA ETA KONTROLA

Lehen artikulua aipamena egitean proposatzen genuen ildoan, 43. artikuluar 3. atal bat erantsi zaio. Bertan ahalbidetzen da: “autonomia-erkidegoetako teknikariek adieraz ditzakete hauen eskakizunak Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzako Bisiten Liburuan agertzen den araudien arabera.”

Ez dugu zalantzarik, eskakizun hauek ikuskatzaitzaren liburuan jasoko balira, hauen ekimenei indar handiagoa emango genien. Gogoratu, liburu hau langileen ordezkarien eskuragarri dagoela.

#### 7. ARTIKULUA: ERAIKUNTZA OBRETAKO ENPRESA-JARDUEREN KOORDINAZIOA.

54/2003 Lege honen 4. artikulua ezartzen zaie eraikuntza obrei. Hala ere, ez da guztiz argitu noiz eta nola bideratuko diren prebentzio baliabide horiek eraikuntza obretan. Beraz, oraindik orain, 1627/1997 Errege Dekretuak sorturiko Segurtasun Koordinatzaileek paper asko bete eta sinatzen duten, baina obretan azaltzen ez diren eta egotekotan, bulegoan diharduten pertsonak izaten dira.

#### 8. ARTIKULUA: FUNTZINARIO PUBLIKOEN PRESTAKUNTZA

Autonomia erkidegoei agindua bidali zaie. Honen bidez, laneko arriskuak prebenitzen diharduten funtzionario publikoak prestatzeko bidea zabaltzen da, eta honela, 54/2003 lege honen 1. artikuluan zehazturiko zereginak bete ahal izan daitezten. Hala ere, aipatzen da Estatuak, araudien bidez, zehaztuko dituela baldintza hauek. Jakina!

## *II ATALA: LAN-ARLOKO ARAU-URRATZE ETA ZIGOR LEGEAREN ALDAKETAK 5/2000 ED*

Aldaketetan nabari den aldaketa nagusia Laneko Arriskuen Prebentzio Legeak biltzen dituen agindu berriak betetzen ez dutenen ardurak sartu izana litzateke.

Bertan jasotzen dira: arduen subjektuak handitu izana, arau-urratzeak, laneko arriskuen prebentzioan arau-urratze larriak eta oso larriak, eta ABLEak darabilten enpresek egin ditzaketan arau-urratze berriak.

Baliogabetzat hartzen dira ere ardurak saihesteko xedez egiten diren itunak, eta eragozpenak eragindako arau-urraketa proposatzen da.

Aipatzen da Laneko Ministerio Fiskalak laneko agintaritzari eta Laneko Ikuskatzaileari jakinarazi behar diela esparru horretan arau-urratzetzat jo daitekeen zigor-arloko prozedura indarrean dagoela.

Genion bezala, 54/2003 legearen 1. artikuluan 17. artikuluan Laneko Ikuskatzaileari egokitzen zaio Autonomia Erkidegoetako teknikariek egindako txostenak egiaztatzeko zeregina.

### **AZKEN XEDAPENAK**

Azkenik, legea indarrean sartu eta 6 hileko epean enpresariak idatziz egingo dute laneko arriskuak prebenitzeko egitasmoa.

54/2003 legea 2003ko abenduaren 14an sartuko da indarrean.

## *54/2003 LEGEAREN AZKEN BALORAZIOA*

Erreforma teoriko edo erreformatxo honen aurreratze gutxi batzuk aipatu ditugun arren, balorazio globala egingo bagenu, berretsi beharko genuke lege honek ez duela eraginkorrago egiten LAPL. Etorkizunak esango digu Maila Sozialeko Arau-hauste eta Zigorreko Legea (LISO-MSAZL) ezarri behar dituztenek behingoan eteten duten hauen geldotasun konplizearekin.

Hori gutxi balitz, teorikoki garrantzitsutzat jotzen diren alderdiak araudien bidez garatu behar direla errepikatu izanak atzerapen handiak ekarriko ditu ezartzeko orduan.

Dena den, esan, lan baldintzak errotik aldatzeko (egun, Osasuna kendu eta hozten digutelako) lan-merkatuaren ezegonkortasunari aurre egin behar zaiola; patronalak lege-araudiak, teknikak eta osasun irizpideak ezartzeaz darabilen intsumisioaren aurka borrokatu behar dela; egungo atentzio sanitario eta/edo prebentzioko sistema pribatu zein publikoak publiko unibertsalean eta kalteekiko (baita eragile eta arduradunekiko ere) beligerante bihurtu behar direla.

Hori guztia lortzearen, lan-osasun arloan parte hartzeko daukagun konpromisoa sendotu beharko dugu: nahiz egunez egun, enpresetan darabilgun parte hartzean, nahiz gure parte hartzeko sozio-politikoan. Maila honetaz ari garenean, legeria eraginkortzat joko bagenu, berau erabiliko genuke; Administrazio Publikoan zereginak egokiro beteko ez luketenak itaunduko genituzke, hauek, teorian, gure eskubideen bermatzaile izan beharko lukete, eta ondorioz, osasunez bizitzeko eskubidearen bermatzaile. Honela ba, proposatzen dugu: legeria, zein osasun publikoaren alderdia den Laneko Osasuna

Lan Harremanetarako Euskal Esparruari lotutako erakundeetan presente egon daitezten, eta honela sendotu ditzagun sentsibilizazio – kontzientziatze eta mobilizazio zereginak.

Hauxe da legeria eta itunak (ezarriak izateaz gain, ez eraginkorrak direnak) gaitzeko modua.

**OSASUNA**

---

**Langile Abertzaleen Batzordeak**  
**LAN OSASUNA**